Lanaldi partzialeko irakasleentzako online topaketa



LABen kezka larria dugu UPV/EHUko lanaldi partzialeko irakasle-ikertzaileen (IRI) lan-baldintza prekarioekiko. Gaur egun, UPV/EHUko 5.678 irakasle-ikertzailetatik, 955 kontratu partzial bat daukate %20a. Lanaldi partzialeko irakasleen hileko soldata 800 eurotik beherakoa da.

Berriz, lanaldi partzialeko irakasleek, modu ez errekonozituan, ordaindutakoa baino lan-ordu gehiago burutzen dituzte.

Egoera larri hau hobeto aztertzeko eta irtenbideak proposatzeko, kaltetuen arteko ONLINE TOPAKETA DINAMIZATUA antolatu dugu MARTXOAREN 30ean, asteartea, arratsaldeko 18:00etatik 18:45etara.

TOPAKETA ESTEKA: https://eu.bbcollab.com/guest/144b7814303d4c6eb434f2a99119ae55

UPV/EHUn IRAKASLE-IKERTZAILE PREKARIZATURIK EZ!